

Pertsiatik Irunera



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

“Mertxika” esaten diogu guk erromatarrek “Pertsiko sagarra” deitzen ziotenari. *Prunus persica* bere izen zientifikoa “Pertsiko arana” esan nahi du. Mertxikaz gain muxika, melokotoi, tua eta preskua ere deitzen zaio.

Erromatar horiek ekarri omen zuten mertxika geurera. Irungo Oiasson utzi zituzten arrastoen artean topatua da Iberiar penintsulako mertxika hezur zaharrena. Pertsiatik Oiassora.

Ez naiz harritzen. Haren usainik sekula hartu ez duen baten sudurpera mertxika heldu bat eramaten duenak “konkistatu” du, edo irabazi, behintzat, bai. Zenbat usain eta dasta ez dituzte ekarri geurera erromatarrek, zeltek, arabiarrek... Denek irabazi gaituzte, eta denekin irabazi dugu.

Ehun eta hamar osagai bereizi dira mertxikaren usainean. Ehun eta hamar! Zetonak, alkoholak, aldehidoak, polifenolak, terpenoak, esterak... Ehun eta hamar. Gaur dakigunarekin, esan dezakegu ehun eta hamar osagai dituela mertxikaren usainak. Hemendik urte gutxira, beste hainbeste aurkituko dizkiote. Flabonolak, tanino kondentsatuak, azido



Mertxika (*Prunus persica*).

ISTVAN TAKACS-CC BY

klorogenikoak, antozianinak... Zer ez du edukiko! Denak osasungarriak. Ez dute, ordea, mertxika guztiek osasuna berdin indartzen. Aspaldikoak dira nekazaritza kimikoan eta nekazaritza ekologikoan ekoizten diren mertxiken arteko aldea ezagutzeko neurrak zientifikoa. Alde ederra dago: besteak beste, ekologikoak askoz ere aberatsagoak dira osagai fenolikoetan. Osagai horiek landarea indartzen dute intsektuei eta onddoen, bakterioen eta birusen infekzioei, baita ere estres mekanikoei aurre egiteko.

Mertxika-txoriari galdetu beharko diogu. Mertxika-txoria edo gailupa, *Pyrrhula pyrrhula*. Bere izen zientifikoa grekotik dator, eta “harrak jaten dituen” esan nahi du, baina geurean mertxika-txoria da. Hark bai, mokoka hasi aurretik, ederki bereiziko ditu mertxika kimikoa eta ekologikoa. Usaina nahikoa izango du. Zalantzarik ez duzu izango zein aukeratuko duen, ezta? Eta zeuk, denda zein hautatzen duzu? ■



943 64 17 10
www.endanea.com
 Jaitzubia 40, Hondarribia

Txoko bereziak

Gozatu naturaz etxean!
 Jantzi etxeko txoko berezi horiek sasoiko lore eta landare ezberdinekin.






